

Pil-Pilean

5. Zenbakia

1997ko martxoa



industrias **GOL** s.a.

TORNILERIA - ESTANPAZIOA ETA EXTRUSIOA HOTZEAN

Tlfn:(943) 752100
Telex 38665 GOL-E

20590 SORALUZE

Sukarrik gabeko larunbat gaua

Kaixo aldizkari:

Inor animatzen ez danez, guk idatzi dou berrido kartia. Honako honetan Plaentxiko asteburueta anbiñtari buruz ein bihar dou berba. Hemen gelditzen garanok dakigun moduan, zapatu gabetan ez da gauza handirik egoten, ez badau Gaztetxiak edo Gaztelupiak kontzertu bat antolatzen. Eta gure galdera hau da: zegaitxik doia jende guztia kanpora? Normala iruditzen jaku ordu jakin batetik aurrera juatia baina ez urten bezain laster. Guri gustauko jakun Plaentxian gazte ekintza gehixao egotia, baina horretarako gaztiok be parte hartu bihar dogu. Beno, bukatzeko, hemen danok gabe bat gelditzera animatzen zaitxuztegu, eta zer moduz datorren zapatuan?

Agur eta ia ikusten garan.

.....

Zubixan egotia bakarrik ez da

Bariantia ein zebeñian pentsatzen giñuan Plaentxiko trafikoko problemak amaitxuta zeozela, eta semaforuak jarri zitxuztenian ondiokan gehixao. Baña hau ez da holan.

Zegaitxik egoten dia Plaentxin, eta gehixenbat Kalebarren eta Gabolatz kalietan, holako ataskuak? Ba hori pasatzen da kamioiak eta errepartuetako furgonetak ez dabelako karga eta deskarga lekuak erabiltzen, eta horren ordez bide erdixan gelditxu eta deskargatzen dabelako. Lehengunian ikusi neban neure begiez zelan horrelako kamioi baten atzian zeuan kotxe bateko andriak esaten zutzen mesedez karga eta deskarga lekuan lagatzeko kamioia, leku hau euren onduan zeualako, eta tipuak aurpegi txarra ipini eta segitxuan amaitxuko zebala esan zutzan, baña beste zortzi edo beratzi miñutu izan zian, ze neube atasko hartantxe neuan ta.

Guzti honekin puntu batera heltzia nahi dot. Gutako edozeñiek karga eta deskargan ezin dou autua aparkauta laga, baña leku horrek erabili bihar ditxuztenek ez baditxue erabiltzen, zetako dao? Horregaitxik eskatzia nahi dutzet herri honetako munizipaleri, mesedez, nahiz eta batzuetan zubixan atasko batzuk soluzionau, ez egoteko beti kotxiak ondo aparkauta daozen edo ez begiratzen eta sobratzen jakuen denboran ez egoteko aiuntamiento parian parajiari begira, kotxiak ez dialako herri honetan legia apurtzen daben bakarrak.

Beraz, gustauko jatan, eta neri moduan jende askori, munizipalak pixkat "al loro" egotia eta ez lagatzeko holako ataskuak herri barruan formatzen, jende askok prixia eukitzen dau eta. A.P.

Argitaratzailea: Pil-Pilean Kultur Elkartea. 121 Posta Kutxatila. **Erredakzio Kontseilua:** Gizarte saila: Eduardo Pombar, Mónica Sarmentero, Ainhoa Sarmentero, Maite Etxeberria. **Gaurkotasun saila:** Aitor Gabilondo, Maite Elizburu. **Kale Inkesta:** Amaia Agirre, Oihana Garitano, Ainhoa Artolazabal, Leticia Alvarez, Maitane Maiztegi. **Kirol saila:** Mikel Gartzia, Iñaki Alberdi. **Kultur saila:** Gurutze Ariznabarreta, Ubane M., Loiola Madera, Sabin Mendizabal, Egoitz Unamuno, Elene Alberdi, Jose Ramon. **Horoskopoa:** Oskar Elizburu. **Denborapasak:** Erredakzioa. **Denetarik blai eta Sutondoaren epelean:** Gorka Prieto, Ubane M. **Argazki arloa:** Oihana Garitano. **Diseinua eta maketazioa:** Gorka Prieto. **Hizkuntza arduraduna:** Soraluezko AEK. **Publizitatea:** Erredakzioa. **Tirada:** 1000 ale. **Inprimategia:** K3 (Bergara). **Copyright-a:** Pil-Pilean Kultur Elkartea.

Pil-Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea:

SORALUZKO UDALA

EUSKAL HERRJA KORRIKA

Prest al dituzue zapatilak Korrika 10.ean parte hartzeko? Ba prestatu lehenbailehen korrika gainean dugu eta. Edizio honek Euskal Herri osoa zeharkatuko du martxoaren 14tik 23ra bitartean Arantzazun hasi eta Bilbon bukatuz. Korrika 10.ean lehenengoan, 1980an azpimarratu zen ideia gabaldu nahi da: euskera berreskuratzea presazko kontua dugula, ezin dugula denborarik galdtu, aurrera egin behar dugula urratsez urrats, pausoz pauso, baina hori bai Korrika.

Azken urte hauetan gure hizkuntzak zenbait arlotan aurrera egin badu ere, oraindik Euskal Herri osoa egiteko lana badugu. Euskarak euskaldun osoak behar ditu, hau da, euskaraz bizi diren euskaldunak, ez dakitenek ikasiz eta dakitenek une guztietan erabiltzeko konpromezua hartuz. Eta hau guztia oraintxe egin behar da, ezin duqu gerorako utzi.

Hamargarren edizio honetan Aita Luis

Villasanteri egingo zaio omenaldia. Villasantek ikerketa interesgarriak burutzeaz gain, lan handia egin du euskara hizkuntza modernoa, hizkuntza osoa izan dadin. Villasanterekin batera Arantzazun egin den lana - gozoratu Arantzazu gure hizkuntzaren gordeleku bilakatu zela eta euskara batuaren sorreran izandako papera-omenaldia da.

Aurtengo Korrika honetan hainbat berrikuntza ditugu; lehenengoa, orain arteko historia jasoko duen liburuenaren kaleratzea duqu. Bigarrena, lekukoaren aldatzea da; Remigio Mendiburuk egindako lekuko orijinalaren erreproduktzio bat Gorriti eskultoreak egin, lehenengoa zaharkiturik baitago. Hirugarrenik Interneten badao KORRIKARI buruzko informazioa, mundu guztiaren ikusgai. Eta azkenik korrika kulturala duqu non otsailetik martxora

bitartean ehundaka ekitaldi antolatuko baitira.

Beraz bi hilabete hauetan berrira ere euskararen aldeko kanpaina erraldoia jarriko du abian Korrikak Euskal Herriko kale eta bazter guztietan. Denon artean Euskal Herria korrika jartzea, hori da korrika 10.aren asmoa. Izan ere, gure hizkuntza berreskuratzea denon zeregina baita. Euskararen jabe garenona zein oraindik ere gure hizkuntza menperatu ez arren zerbait propietzat hartzen dutenena; instituzioena zein gizarte ekimenarena. Gozota egin eta aurrerapausoak emateko aukera paregabea eskaintzen digu Korrikak.

Korrika dela eta Sorraluzen ere badugu aukera antolatu diren ekintzetan parte hartzeko. Zapatilak prestatu, beso eta oinak astindu eta mingainei eragin ea Sorraluzen KORRIKA euskara denon ahotan entzuten dugun.

EPA-REN FUNTZIONAMENDUA

87 ikasle ari dira orain eskola graduatua ateratzeko. Hauetako batzuk 65 urte dituztelako, jakin nahi izan dugu nola funtzionatzen duen EPAk (Educación Para Adultos) eta nola moldatzen diren ikasle nagusi hauek. Horretarako EPA-ko irakasleekin egin dugu berba.

1.- Ba al dago baldintzarik EPA-n ikasteko?

Hamasei urte edukitzea, orain dagoen jendea 16-65 bitartekoa delarik.

2.- Zein maila hartzen du ikasleak Epa-n?

Eskola graduatua.

3.- Noiz sortu zen EPA?

Soraluzen 90 edo 91an gutxi gora behera. Gaur egun, goizean, arratsaldean eta gauen bi orduko taldeak dauzkagu.

4.- Zenbat ikasle eta irakasle daude?

87 ikasle eta 4 irakasle gara.

5.- Zeintzuk dira formalagoak, ikasle gazteak edo zaharragoak?

Denak beraien borondateaz etortzen dira; eta horretan nabaritzen da eskolara behartuta

joaten direnen arteko desberdintasuna eta hona borondatez etortzen direnen artekoa.

6.- Eta zergaitik etortzen da jende nagusia, ikastera edo erlazionatzera?

Nik uste dut, bietara etortzen dela jendea.

7.- Jende nagusiak "txuletak" egiten al ditu?

Ez.

Ez, edo... ez dituzue harrapatzen?

Ez, oso zintzoak dira eta ez dituzte "txuletak" egiten.

8.- Zenbat denbora behar da graduatua ateratzeko?

Maila edo kurtso desberdinak daude; "ALFA", irakurtzen ez dakitenentzako, "NEOS", gutxi dakitenentzako, "CERTI", OHoko laugarren

edo bostgarren antzerakoa eta "PREGRADUADO" OHoko seigarren maila. Graduatu mailara heltzen direnek lau hilabetetan atera dezakete, behar duten beste errepika dezaketelarik.

9.- Ekintza extraeskolarririk ba al dago?

Bai, tailerrak, txangoak, kurtso bukaerako erakusketa... Gainera, aurtengo berrikuntza bezala, antzerki tailerrak antolatu dira, EPA-ko ikasle ez direnak ere apuntatu ahal izan direlarik.

10.- Gaztelaniaz ikasten al da bakarrik?

Bai.

Zergaitik?

Ez delako sortu euskarazko talderik, baina sortuko balitz emango genuke.

ARMENDIA JATETXEA

Sukaldaritza tradizionala

**ERA GUZTIETAKO
OSPAKIZUNAK**

Ezozia Auzoa 11 Tel. 75 10 02 SORALUZE

ALAITZ TABERNA

**EZOZI ETORBIDEA
TFNOA. 75 11 90
SORALUZE**

MARTXOAK 8, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoak 8an mundu osoan ospatzen da emakumearen nazioarteko eguna, baina gehienetan ez dauka batere garbi zer den egun honetan gogoratzea nahi duguna. Egun honen historia labur bat prestatu dugu.

Estatu Batuetako Jantzigintzako bi langile hilabete greban egon ondoren, 1908ko azaroan langileek mitin bat antolatzen dute eta hemen Clara Lemlichek egiten du greba orokorreko proposamena. Proposamen honi jarraituz, hurrengo egunean 20.000 langilek baino gehiago, gehienak emakumeak, tailerrak geratu zituzten eta 13-asteko greba gogor bat mantendu zuten, bertan kanporatzeak,

gosea, erasoak eta 600 atxilotze baino gehiago gertatu zirelarik, baina azkenean irabazi egin zuten. Emakumeek irabazi zuten, soldaten igorak lortuz, lan egunaren murrizketa eta 300 denda sindikatzea. Handik aste batzuetara manifestaldi bat antolatu zuten emakume langileek, beraien lan eta bizi baldintzak hobetzeko, umeen lana bukatzeko eta emakumeak botaren eskubidea izateko. Manifestaldi hau 1909ko Martxoaren 8an gertatu zen.

Emakumearen Nazioarteko Sozialista Kongresuak (Kopenhage, 1910) izendatu zuen nazioarteko ekintzen egun bat, emakumearentzako sufragio unibertsala eskatzen.

Honela 1911ko martxoaren 8an ospatzen da lehenengoz Emakumearen Nazioarteko Eguna.

Berandunago, 1911ko martxoaren 25ean "Triangle Shirt Waist Co."k sua hartu zuen eta 146 emakume hil egin ziren ikaztuta larrialdietako irteerak itxita zendelako. Sufragisten mugimenduek, sakonki minduta, langileen protestak bereganatu zituzten mitinak eta manifestaldiak antolatuz emakume langileen lan baldintzak salatzeko.

Gaur, 85 urte berandunago, emakumeek orduko eskubide-eskaerak errealitate bihurtzeko borrokatzen dihardugu; batzuk lortu egin dira, beste batzuk oraindik ez.

SORALUZKO EMAKUMEEN TALDEA

A L E R G I A K

Azkenengo urteetan gaisotasun alergikoek gora egin dute, eta hauen artean udaberriarekin batera helden direnak ditugu. Gaisotasun alergikoak izateko joera hereda daiteke baina ez gaisotasun alergiko zehatz bat.

Landareen polenak eragindako sintoma gehienak martxotik aurrera hasten dira. Gure mendietan - kontuan izan non gauden kokatuta, zuloan mendiz inguraturik - sortzen den alergia motarik arruntena "Lolium Peremne" deitzen da.

Nondik datorkion izen hori? Alergia honen iraupena ohikoena baino luzeagoa delako, otsailetik maiatzerarte luza daiteke. (Hau zortea gurea!)

Lolium Peremneren sintomak hauetxek dira: zailtasunak arnasa hartzerakoan, "rinitis", konjuntibitisa, bronkitisa eta kasu larrietan asma eta itomena.

Azalean ere ager daitezke alergiaren eraginez "urtikaria", garauak eta hazkura.

Polen alergia izanez gero, kontaktotik minutu gutxira agertzen da. Beste alergia motetan 12 edo 24 ordotara ager daiteke. Alergiak tratatzea oso zaila da ez direlako erabat sendatzen, ahuldu besterik ez dira egiten eta berriro agertu alergia sortzalearekin aurkitzerakoan. Gazteen kasuan bapatean senda daiteke 18 eta 21 urte bitartean.

Beraz, badakigu Soraluzean kontuz Lolium Peremnerekin.

Soraluze Haratuzteetan

Ohi den legez eta Garizumaren menpe, due-la denbora gutxi Aratuzte edo Karnabalak ospatu dira. Inoiz baino lehen ekin zaio aurten jai giroari; otsailaren 6an hasi baitziren eta 11ean izan zutelako amaiera.

Haratuztea, leku guztietan ospatzen den jaia da, baina molde ezberdinak hartzen ditu lurraldeen arabera; hala nola, Brasileko "samba"-k ez du zerikusirik handirik Venezian ospatzen diren Karnabalekin edota Tolosako Ihauteriekkin ere.

Hala ere, badago ospakizun honetan errepikatzen den ezaugarri bat; sei egunetan zehar

erropa arruntak alde batera utzi, eta gogoko den edozereaz mozorrotzea.



Egun honetan zehar, gizabanako bakoitzaren irudimenak agintzen du, mozorroa aukeratzeko unean batipat. Aukera ezberdinak eskeintzen dituen jaia izango da; lehenik eta behin, badago jendea mozorroaren berritasuna bilatzen duena, diru pila gastatuz "eskusibotasun" markaren seinale;

bestetik, ezagunezintasuna bilatzen dutenak eta azkenik, ardurarik gabe azkenengo momentuan etxeko ganbaran dauden lau trapu zahar jantzi eta kalera irteten direnak. Denetarik dago eta dena da posible Haratuzteetan; bakoitzaren irudimen, baliabide eta nahien mesedetan egonik azken erabakia.

Ehundaka mozorro ezberdin topa daiteke; baina nagusitasun bat aurkituz; gizonezkoak mozorrotzeko orduan, gehienetan emakumeen irudia hartzen baitute eredutzat, besteak beste. Emakumeak ordea,

GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE



ITXAROPENA

TABERNA

SORALUZE

Etxaburueta, 4 - Tlf: 752330

(jarraipena...)

edertasuna eta liraintasuna bilatzeko joeraren adierazle izan ohi dira.

Soraluzeko herria ere, urteoko usadioari jarraituz Haratuzteetan barneratu da. Zapatuku giroari dagokionez, Euskaraokeak Karnabal kutsua barneratzea lortu zuen, haurrek beraien soinean zeramaten

janzkerek eta bestaldetik, mikroaren atzetik irtetzen ziren soinuek bete betean antzesten ari ziren pertsonaren "rol"-az jabetzen ziren.

Gainontzeko jendearentzat ere, bazegoen bai, egunerokotasunetik kanpo gelditzen diren ekintza ezberdinak burutzeko aukerak: mozorro lehiaketaren partehartzaile edota ikusle soilak izatea

eta Plaza Zaharrera hurbilduaz gero, musikaz gozatzeko aukera.

Guztiak bere amaiera duen bezala, Martitzenak festa giroarekin datorren urterako utzi du hurrengoko txanda. Beraz, ia oraingo honetan, denborak aurre hartzen ez duen berauen antolaketarako orduan.

ZABORRAK BIRZIKLATZEKO ERA ORDEZKATUA IZANGO DA

Deba Beheko Mankomunitateak, hondakin biltzetarako zerbitzu berri bat jarri du martxan. Zerbitzu hau ipini izanak gurpilak, egurrak eta eskonbroak birziklatzea eta sailkatzea du helburu, gainontzeko zaborrekin egiten den bezala; papera, kartoiak, pilak, besteak beste.

Zabor hauen bilketa H.B.Btan (Hondakina Berreskuratzeko

Biltegia) emango da, hondakin mota batzuk aldi baterako biltzeko prestatutako instalazioak dira, eramango duen prozedura aurrez sailkatu eta dagokien kontenedoreetan utzitako zaborraren ondoren gaur eguneko birziklapen eta balorapen munduan sartzea da.

Deba Beheko Mankomunitatearen esanetan, printzipioz bilketa hiru motatako

hondakinetan oinarrituko da, bakoitza kontenedore bati egokituz. Lehenik eta behin, gurpilak ditugu; bizikleta, motor eta berebiletako gurpilak bereziki, edozein motatako kautxoak barnera daiteke ere. Bigarrenez, egurrak genituzke; hauen artean palletsak, zerrautsa eta txiribita garbiak, aglomeratuak, oholak, kaxak, takoak, printzak eta egur oskolak, eta azkenik

ARANE
POLIKIROLDEGIA
Tif: 75-24-66




SORALUZE

eskonbroaren atala genuke; adreiluak, hormigoia, area, azulejoak, baldosak, igeltsua, marmola, teilak, zementua, bainugelarako osagaiak, harriak eta harritxintxorra azpimarra daitezke.

Bestalde, zerbitzu

berri hau sortzearen arrazoiak isurtegien bizitza luzatzea eta lehengaiak aurrezte, eta bigarrenik iadanik Mankomunitateak Deba Beheko herrialdeetan ezarri zituen kontenedoretan edozein

eratako hondakinak kantitate haundietan botatzen zirenaren



adierazpenetan oinarritzen dira. Guzti honen ondorioz, Mankomunitateak H.B. Bak irekitzeko premia ikusten du.

Biltegi hauek Deba Beheko hiru herrialdeetan kokatuko dira; hasteko Eibar da aipagarri, IBUR ERREKA inguruan kokatua, Mailabi, Eibar eta Ermuko biztanleentzat erabilgarri. Bestalde, bigarren gunetzat Elgoibarreko URRUZUNO ingurunean, bertan Soraluze, Elgoibar eta Mendaro sartuz. Bukatzeko Mutrikun LARANGA auzoan, Itziar, Deba eta Mutrikurentzat bereziki. Honetaz gain, Mankomunitateak aditzera eman digunez, H.B. Ba urteko egun guztietan eta eguneko hogeitalau orduetan erabiltzea baimentzeaz bat, **dohaineko** zerbitzua izango da.

BATZOKI TABERNA

Kalebarren 26

Tlf: 75-12-12

SORALUZE

OSASUNA TABERNA

Bokatak, pintxo bereziak,
plater konbinatuak
eta kazuelatxoak

Gabolatz 10

Tlf: 75-18-36

SORALUZE

ARRANO-TABERNA SORALUZE



MARTXA eta BORROKA



ZER IRUDITZEN JATZU KORRIKA PLAENTXITIK EZ PASATZIA? PARTE HARTZEN AL DOZU KORRIKAN?



Izena: Iñigo Gomez Arribas
Adina: 7 urte
Ikaslea

Bai, Korrikan parte hartuko dot beste umeekin batera. Asko gustatzen jata korrika eixia.



Izena: Jabier Gabilondo
Adina: 53 urte
Pensionista

Ez jata ondo pentsatzen. Baina herri danetatik pasatzia be gehitxo izango da, eta horregaitik batzutan fastidixau ein biharko gara. Oin arte parte hartu izan dot, haina hemendik aurrera ezin dot.



Izena: Aitziber Soraluze
Adina: 17urte
Ikaslea

Ez jata ondo iruditzen, Eibartik eta ingurunetik pasatzia eta hemendik ez. Gainera gu herri euskaldun bat gara, eta horregaitik eskubidia daukagu hemendik pasatzeko, jende asko baitago Korrika apoiatzen dabena. Hemendik pasau biharko zan.



Izena: Aitor Santiago
Adina: 18 urte
Ikaslea

Oso gaizki iruditzen jata. Zegaitxik? Ba, Plaentxitik zegaitxik ezin izango dia pasau hau dan herri galantakin eta politxakin? Noizian behin parte hartu izan dot baina aurten ezin dot.



Izena: Aitziber Aldazabal
Adina: 19 urte
Sukaldaria

Bai, neri geizki, nen gustauko jatan hemendik pasatzia, ez? Horrela ambientia dao. Nik ez dot parte hartzen, beitsu, basarrixan nehikua korrika eitzen dot.



Izena: Jose Luis Badiola
Adina: 49 urte
Langilea

Ez jata ondo iruditzen. Nire ustez ekintza kultural bat da. Maltzatik honaino 4 km. Besterik ez daoenez ez jakue ezebe kostatzen honutz desbideratzia. Herriarentzat gauza polit bat da eta dirua jasotzen dabe gainera. Ezin izan dot inoiz parte hartu.



Izena: Rosa Etxeberria
Adina: 37 urte
Langilea

Oso geizki. Plaentxiak ere bihar dau holako ekintza batzuk, pixkat herriko girua alaitu ez? Eta hori, euskararen alde zerbait ein bihar bada, oso geizki eh! Beti parte hartu izan dot, pasau izan danian.



Izena: Mailalen Galarraga
Adina: 17 urte
Ikaslea

Ba, gaizki, ez? Plaentxin euskeria nahikua itxen da, eta orduan jentiak, nahiko dau apoiatzia hemengo euskeria. Oin arte parte hartu izan dot, aurten ikusiko dou, kotxeak prest badare, Maltzara juateko agian bai. Korrika Maltzara juatiak ez dauka zentzurik.

Mendizabal Okindegia

*Kalebarren 10
Telef. 752091
Soraluze*

*Severo Atube 2
Telef. 798960
Arrasate*

Kidari, S.L.

ASESORIA EMPRESARIAL

Santa Ana, 22-B - 1 ezkerre - SORALUZE
Tlf. /Fax 75 17 82

KIROLARIAREN TXOKOA


ANDONI CALLES
pelotaria



- 1.- Esaldi bat.
Aupa Soraluze.
- 2.- Soraluzetarretzat mezu bat.
Herriko giro ona mantentzea.
- 3.- Pilota ez den kirol bat.
Mendia.
- 4.- Amets bat.
Pilotari profesionala izatea.
- 5.- Animalia bat.
Txakurra.
- 6.- Neska batek behar du izan...
jatorra eta erakargarria.
- 7.- Lotsatzeko motibo bat.
Adibidez, gau bateko mozkorraldiaren ondorioz egindako zorakeriak hurrengo egunean komentatzen dizkidatenean.
- 8.- Soraluzeko toki bat.
Karakate.
- 9.- Zer falta zaio Soraluzeri?
Asteburuetan ambiente gehiago.
- 10.-Eta zuri?
Oraintxe momentuan adibidez, kotxea edukitzea.
- 11.-Gustuko janari bat.
Txuletia.
- 12.-Musika talde bat.
Roxette.
- 13.-Telebistako programa bat.
Filmeak generalean.
- 14.-Irakurri duzun azken liburua.
Frankeinstein, ingeleraz.
- 15.-Edari bat.
Zerbezia.
- 16.-Bizitzeko, Soraluze edo hiriburu bat?
Soraluze.
- 17.-Oporretarako toki bat.
Leku lasai bat, Pirineoak adibidez.
- 18.-Negar egin duzun azken aldia.
Ez naiz gogoratzen.
- 19.-Munduarentzat nahi bat.
Zoriona.
- 20.-Anekdotak bat.
Kuadrilakoak azken "Memorial Atxa"-n parte hartu genuenean.

Hormak igotzearen artea

ESKALADA. Hau da, zenbaki honetan jorratuko dugun gaia. Aspaldi honetan, Soraluzen, eskaladarenganako zaletasuna gehitu dela somatzen da. Badira hainbat Soraluzetar, mundu honetan sarturik daudenak, eta eskaladaren inguruan gehiago jakitzeko asmoarekin, hauetako bi aditukin elkarrizketatxo bat mantendu izan dugu, hain zuzen ere, Iñaki Ruiz eta Ion Elizbururekin.



Bi eskalatzaille hauentzat, eskalada, kirol bat baino gehiago, bizitza ulertzeko modu bat da, filosofia bat. Ion eta Iñakirentzako, eskaladaren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat, naturarekin mantentzen duzun harremana da.

Iñakik aipatu nahi du, gaur egun, hasi nahi duen batentzako lehen baino aukera gehiago daudela, bai formazio eta bai informazio aldetik. Beraiek hasi zirenean, beraiek bilatu behar izaten zuten informazioa. Ionen ustez, Soraluzen badaude tokiak

Iñakiren esanetan, eskalada egiteko oztoporik handienetakoa diruan dagoela. Eskalada egitea nahiko garestia da eta jasotzen dituzun diru laguntzak oso txikiak izaten dira eta gainera laguntza hauek goi mailako eskalatzaileentzat zuzenduak egoten dira.

E s k a l a d a egiteko ezinbestekoa da material egokia edukitzea. Ionon esanetan, materiala, eskalada motaren arabera egongo da; horrela hiru eskalada mota aipatu nahi ditu: " e s k a l a d a d e p o r t i b o a ", "eskalada klasikoa" eta "eskalda alpinoa". Hala ere, badago eskalada mota guztietarako funtsezkoa den materiala: soka bat, arnesa, ziurtatzeko materiala, katua eta zinta berezi bat bi mosketoiekin. Guzti h o n e n zenbatekoa 30.000 pezetakoa izango litzateke gutxi gora behera.

Aipatu dugu batipat, 3 eskalada mota desberdintzen direla: "eskalada deportiba"-ren ezaugarri garrantzitsuena bide motzak eta zailak dituela da, "eskalada klasika"-k bide errezagoak baina luzeagoak dituela eta azkenik "eskalada alpinoa" dago; eskalada mota hau, altuera handiko mendietan egiten den eskalada izango litzateke.

Beraien iritziz, mundu guztiak eskalada egiteko aukera duen arren, pertsona batzuen kalitateak

aproposagoak dira eskalada egiteko orduan; horrela, aipatzen dute, eskalatzaile onak normalean argalak eta indar handikoak izaten direla. Honetaz gain, arintasuna eta teknika on bat edukitzea oso beharrezkoa da.




Eskalada oso arriskutsua dela esaten dute nean, jendearengan informazio eza somatzen dela aipatzen du Iñakik. Onartzen dute, eskaladak bere arriskuak badituela, baina gauzak ondo eta zentzu handiz egiten badituzu, arriskua askoz ere txikiagoa da; oso garrantzitsua da eskalatu aurretik gauza guztiak ondo daudela ziurtatzea.

Soraluzen eskaladaren egoera ez da oso ona; jendea badabil, baina askotan moda delako eta ez benetan egin nahi duzun gauza delako.

Hasi nahi duen batentzat, bakarrik joatea ez dela oso egokia diote; gainera, eskalada egin aurretik beharrezkoa iruditzen zaie ikastaro bat egitea eta honetaz gain, lehen aipatutako arreta guztiak kontutan hartzea ezinbestekoa da.

Horrela, bi eskalatzaile hauen laguntzarekin, gure asmoa, zuek eskaladari buruz gehiago jakitzea zen eta norbaitek eskalada munduan hasi nahi badu, jakin dezala Iñaki Ruiz eta Ion Elizburu prest izango dituela edozein zalantza argitzeko.



Erretegi

Jatetxea

ESOZIA

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Rogelio Botanz: Euskaldun Kanariarra

Joan zen Otsailak 22-an polikiroldegiko areto nagusian Rogelio Botanz izeneko kantaria eta bere "Puntos Suspensivos" taldea dastatzeko aukera ezin hobea izan genuen. Jaiotzaz euskalduna dugun Rogeliok Soraluzetar dantzari eta txistulari batzuen laguntzaz zenbait kontzertu eman zituen Euskal Herrian zehar. Lehena Bilboko kafe antzokian, hurrena Elorrioren eta azkena Soraluzen; esan behar delarik eman zituzten **e s p e k t a k u l u a k**, benetan, ikusgarriak izan zirela.


Gurekin hitzegiteko unea ere izan zuen eta hau izan zen gure solasaldia:

Lehen aldia al da Euskal Herrira zatoztela?

Ez. Orain zenbait urte izan

nintzen hemen Taller Canario de Canción-ekin.

Pare bat jira egin genituen; haietako bat Legazpiko Euskal Txokoaren alde izan zela gogoratzen dut. Baina Rogelio Botanz eta Puntos



Suspensivos bezala lehen aldia da, bai.

Zer nolakoa izan da Pedro Guerra eta zure arteko erlazioa?

Hasiara batetan, beste talde baten partaide nintzen, talde hau Taller Canario de Canción zelarik. Bertan, Pedro Guerra, Andres Molina eta nik neuk jotzen genuen. Istoria hura oso

berezia, baliotsua eta ederra gertatu zitzaidan. Talde hartan ez zegoen buru edo liderrik, eta horrek hiruron kreatibitatea lantzen laguntzen zigun. Honek 8 edo 9 urte iraun zuen.

Orduan Pedrok hura utzi zuen. Andres eta Biok 2 urte gehiago jarraitu genuen harekin baina azkenean geuk ere utzi egin genion. Orain, bakoitzak bere bidea jorratzen jarraitzen dugu.

Zeintzuk izan ziren zure hastapenak

musikan, zer adinekin edo nola?

Arrazioaren erabilera dudanetik gogoratzen dut nire etxean musikarenganako pasioa. Han, nire etxean, igandero abestu egiten zen. Nire aita Olaztiko nafar jota kantari bikaina da eta Euskal Herrira natorren bakoitzean eskenatoki

(jarraitzen du...)

SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA

Rabal, 2

Tlf: 751646

SORALUZE

Pub Intxixu

Tel. 752036

Etxaburueta, 8 - SORALUZE

gainera igotzen saiatzen naiz. 9 urterekin edo, nire lehen kitarra erosi zidaten. 11 urterekin, jadanik, abestiak egiten nituela gogoratzen dut.

Nik, Kanariar Irletara joan baino lehen, konposatzen nuen jada, baita abestu ere, Jose Ignazio Aranburu izeneko legazpiarrarekin.

Nola bateratu zenuen Puntos Suspensivos delako taldea?

Taller Canario utzi eta hurrengo 2 urteetan taldearekin jarraitzen saiatu ginen, baina hau ez zen posible izan eta orduan musikoak nahiko frustraturik geratu ziren.

Orduan, nire bakarkako proiektu propioaren aurrean aurkitu nintzenean, zera esan nien: "Begira, inoiz ez duzuela kobratuko eskeintzen dizuet, ezinezkoa bait da, baina, hori bai, nik zuek beti taldearekin bidaitu dezazuen borrokatuko dut."

Horrela bada, nahi dutenean entsaiatzen dute, hala ere ez dakizue nolako talde disziplinatua dudan.

Guk zera esan ohi dugu beti; mundu guztiak Reggae-aren



soinua dantza egin badu, ez dago arrazoi musikalik, hori Tajaraste-ekin gerta ez dadin.

Badago abestiren bat euskararekin eta zure sustraiekin zerikusirik duena, ez al da hala?

Bai. Noski. Jada Taller-en disko batean Natxo de Felipe-k Garaldea kantua abestu zuen gurekin; "hau burutazio ederra, ez egin ba zalantza, oraintxe ta euskaldunak egiten aintzinako dantza".

Gainera, euskera Guanche-arekin konparatzen hasten zara eta konturatzen zara agian

hastapenak ez dituztela hain desberdinak; eta hala ez balitz ere, nork galeraziko dit hori musikalki adieraztea?

Kanariar irletara joan zinen eta han gelditu. Zer du hark?

Nik paktu bat egin nuen orduan nire emazte zenarekin, gero, erlazio hura bukatu egin zen eta nonbaiten bizi behar nuen.



SORALUZeko **æk** EUSKALTEGIA

EUSKERA IKASTAROAK

Hemen daukazu EUSKERA non ikasi!!!

Maisuen etxea - Tlf : 75-14-34 - SORALUZE

ERETELUPE
TABERNA

Zer gertatzen da? Gertatzen da, denbora pasa egiten dela, alabak ditudala eta alabak hazi egiten direla. Gainera han jende oso adeitsua topatu dut, baita tradizio musikal eta kirol autoktono kilikagarriak ere. Guzti honekin engantxatu egin naiz eta orain ez nintzateke bueltatzeko kapaz izango.

Nire aitaren etxea Legazpian dago, bainon nere alaben etxea han dago eta neria da.

Gaur egun nere bikotea dena, Abuztuan berarekin ezkonduko naizen emakumea, kanariarra da berriro. Ikusten denez, istorioa hau berriz ere hasten da.

Egin al duzu bisitatxoren bat Legazpira?

Noski baietz. Gainera taldekoak bertako aterpetxe munizipalean egon dira, leku paregabea. Mendiaren magalean, ardiekin eta baserri baten alboan, Mirandaolatik gertu, Aitzgorri eder ederra ikusten delarik bertatik. Ni, nere gurasoekin eta anai-arrebekin izan naiz etxean.

Beraz, zure familia hemen bizi da?

Bai. Denak, Nire kanariar istorioa baino lehenagoko familia hemen bizi da. Han nire bikotea eta alabak daude.

Zerbait berezirik esan nahi al zenioke Soraluzeke jendeari eta euskaldun jendeari orokorrean?

Bai. Nirekin etorri diren kanariarrak oso harriturik daudela. Euskal Herriarekin lotuta dagoena, telebista bidez ezagutzen duena, oso harritura gelditzen baita hona etortzean, hau izugarri ederra eta Herri aberatsa delako. Hemen bizi izan dugun ambientea izugarria da. Hau guretzat oso bibentzia positiboa eta ederra izan da. Liluraturik goaz etxera.

JUAN MARI ARRAINDEGIA

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!

TFN: 75-24-40

SORALUZE

UFDAL FRUTADENDA

Fruta goxoak eta barazki freskoak

TFN: 75-20-55

SORALUZE

MARISA ILEAPAINDEGIA

Tfnoa. 752243

Rabal kalea 19-1 • SORALUZE

ANTXOLIN TABERNA

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 - Tfnoa:752131
SORALUZE

NAGORE SANZ : "KONTZERTU ON BAT EMATEA MENDI BATEN GAILURRERA IRISTEA BEZALAKOA DA"

Nagore Sanz hogeita bi urte bete berri dituen soraluzetar bat da. Oso gaztea izan arren musika munduan asko ibili da. Izan ere, txikitatik gurasoek musika ikastera bidali zuten, eta hamabost urte zituela lehen abesbatza zuzentzen hasi zen, pianoa eta armonia ere gustoko zituen bitartean. Bestalde, abestea asko atsegin zaio eta hainbat instrumentu jotzeko trebetasun handia du. Orain, Ezoziko Ama Abesbatzaren zuzendaria da eta horrez gain, Soraluzeko Musika Eskolako Gazteen Abesbatza ere zuzentzen du besteak beste.



Noiz sartu zinen musikaren munduan eta zergatik?

N.S: Bost urte nituela gitarra ikasten hasi nintzen Soraluzen. Handik urtebetera, gurasoek nik solfeoa ikas nezan nahi zuten eta herrian solfeoa ikasteko aukerarik ez zegoenez Eibarrera joan nintzen. Beraz, hasiera batean, nire gurasoak izan ziren musika mundu

honetan sartu nindutenak. Ni oso gaztea nintzen hura zer zen jakiteko. Gainera gogoratzen dut hasieran solfeoaz nazkatu nintzela baina gerora merezi zuela konturatu nintzen.

Jadanik musika munduan murgilduta, nola hasi zinen zuzendari lanetan?

N.S: Solfeoa bukatu ostean eta

pianoa ikasten nengoen bitartean, hamalau urte nituela Ezoziko Ama Abesbatzan sartu nintzen. Sortu berria zen koru hau gazteez osaturik zegoen eta, hasiera batean, abestu egiten nuen. Handik urtebetera zuzendariak utzi egin zuen eta ni bere orde jarri nintzen. Abesbatza honek hiru urte iraun zituen gazte asko kanpoan ikasten hasi zirelako. Bitartean, hiru urte

MARI CRUZ ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM

Tfnoa: 752418
Gabolatx Kalea 5-c Behea eskuma
SORALUZE

ARTICULOS
DE
FERRETERIA

MENAJE

COPIA DE
LLAVES

IBAI-ONDO

AGUSTIN OSA ORMAETXEA

KALEBARREN, 14
TLF: 751199

SORALUZE

horietan, Hondarrabian Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolaturiko ikastaro batean egon nintzen.

Abesbatza desagertu eta handik gutxira herrian Soraluzen Abesbatza izeneko beste koru bat sortu zen eta hau jende helduaz osaturik zegoen batipat. Orduko zuzendaria Bixente Olaizola zen baina gerora korua utzi zuen eta ni bere ordeztatu nintzen.

Joan den urtean koruak izenez aldatu zuen eta gaur egun Ezoziko Ama Abesbatza deitzen da, aurreko korua bezalaxe.

Ezoziko Ama Abesbatza zuzentzeaz gain, beste zerbaitegiten al duzu?

N.S: Bai, Musika Eskolako Gazteen Abesbatza ere zuzentzen dut. Pasa den urteko irailean hasi nintzen eta oso gustora nago.

Abesbatza baten zuzendaria izateak bere alde onak eta txarrak izango ditu, ezta?

N.S: Bai, noski. Alde batetik, kontzertu on bat ematea mendi baten gailurrera iristea

bezalakoa da. Kontzertu bat prestatzeko lan asko egin behar da eta ahalegin berezi bat egitea eskatzen du. Mendi bat igotzea ere gogorra da, baina gailurrera iristean arro

suposatzen du, eta noski, zerbaitegizki ateratzen bada erru guztia nirea da.

Musika alorrean, zerbait ikasketa burutu duzu?



sentitzen zara, kontzertu on bat eman ondoren bezalaxe. Gainera, abeslarien eta zuzendariaren artean nolabaiteko komunikazio edo giro berezi bat sortzen da. Nire eginkizuna abeslarietara zerbaite transmititzea dela iruditzen zait eta gero, guztiak batera, entzuleetara transmititzen diegu mezu hori.

Bestalde, koru bateko zuzendaria izateak ere ardura handi bat edukitzea

N.S: Alde batetik, solfeoa, koraleko bi urteak, pianoko sei urte, armonia klasikoko lau urteak eta Elgoibarren musikaren historia, forma eta estetika ikasi ditut. Bestetik, iaz transposizioa ikasten hasi nintzen eta aurten bigarren maila egiteko asmoa dut Gasteizen. Eta azkenik, Jazzlen, Donostian dagoen musika modernoko akademian, armonia modernoa eta baxu elektrikoa ikasten nabil.

H
E
R
R
I
Z



A
n
a
i
a
k

ITSASTAR
Arraindegia

Santa Ana kalea, 13
Denda 752149
Etxea 75 16 27

EZOZI ORRAZTEGIA

Galipot

Tfnoa. 752385

SORALUZE

Ze asmo dituzu etorkizunerako?

N.S: Momentuz, EzoziK Ama Abesbatzari dagokionez, ekainean Orion kontzertu bat eskainiko dugu eta gero, uda ondoren, Orioko Abesbatza Soralezera etorriko da. Uztailean, urtero egiten dugun bezala, herriko jaiak direla eta, elizan kontzertu bat emango dugu eta ondoren, gabonetan beste kontzertu bat.

Musika Eskolako Gazteen Abesbatzarekin beste bi kontzertu egiteko asmoa dugu, bata Aste Santuan eta bestea kurtso amaieran. Eta orain kontzertu horietan eskainiko ditugun abestiak

prestatzen ari gara. Horrez gain, aurreko koruekin apirilean Bergarara joan nahi dugu, bertan, Txilintxa gazteen abesbatzarekin batera kontzertu bat eskaintzeko.

Eta ikasketei dagokienez, Jazzlen ikasten jarraitzeko eta Gasteizen transposizioa amaitzeko asmoa dut. Hortaz aparte, abesbatzen munduarekin zerikusia duten kurtsiloak egitea gustatuko litzaidake.

Gaur egungo egoera ikusita, zure ustez musikaren munduak ba al du etorkizunik?

N.S: Orain dela urte batzuk musika eskola asko sortu ziren, eta hori dela eta, irteera asko zeuden. Baina lanbide guztiakin gertatzen den bezala, gehiena "saturatua" dago. Hala ere, musika modernoaren alorrean, bere hezkuntzari begira, posibilitateak egon litezkeela uste dut, adibidez, jazz, blues, rock edo folk-a irakasten. Baina beste lanbideetan bezala, hemen ere etorkizuna nahikoa iluna da.

"Hemen ere etorkizuna nahikoa iluna da."

Gaztelupeko Hotsak etengabe lanean

Polikiroldegian egiten diren hainbat eta hainbat ekintzetatik, musikako ekintzetara hurbildu gara eta konkretuki Soralezeko Gaztelupeko Hotsak disketxeak antolatzen dituen kontzertuetara. Beraz, Gaztelupe tabernara joatea pentsatu genuen ea "Zarra"-k herriko disketxe gazte honi buruz zerbait esaten zigun; hauek izan ziren bere hitzak:

"Ba, bueno, oin dala urte ta erdi okurridu jakun Ñako Goñi Blues kantariarekin gendela. Ñakorena, bultzada bat bihar eban taldia zan ta orduen, ba, diskua geuk etaratzia pentsau genduan eta izena Azpeitxiko eta Azkoitxiko poetek emon zozkuenez eta parian suertau zan gauza bat zanez, aurrera jarraitzia erabaki genduan. Musikari dagokionez, ibakailaua kenduta beste musika klase guztiak onartzen ditzugu. Diruaren alorrean, berriz, disketxe honetan kontzertuak etabar. egiten etaraten dogu dirua, hurrengo diskua finantziatzeko besteko dirua besterik ez bada be. Gainera, salmentak be ez dia txarrak; gu bahiantzat pozik gaoz. Honekin ez dogu esan nahi kriston salmentia dala, baina txarra bez...

Disketxia lagun batzuk osatzen dogu. Ez dao jende asko hemen sartuta. Izetez soziuak 3 besterik ez gara. Oin bertan daukagun proiektua Ñako Goñikin daukau eta hamendik hilabete batzuetara aterako dogu disko bat. Badakigu ez dala asko salduko, baina bueno, askotan gauzak diruari beitu barik bihotzakin ein bihar dia, ze azken finian hau lagun talde bat da eta lagunnen artian diruak ez dau gehixegi kontatzen.

LEHEN EUSKAL GIZAKIAREN BIZIKERA ETA GOGOETA

Euskal Herrian bizi ziren gizakien lehen aztarnak orain dela ehun mila urtetakoak izan arren, aurrerantz joango gara eta orain dela lau mila eta bostehun urteko gizakietaz mintzatuko gara. Eneolitos aroan gaude, giroa oraingoaren antzekoa orduan ere.

Abeltzaintzan eta nekazaritzan hasiak ziren, nahiz eta nekazariak lurrari lotuak egon behar, abeltzaintzak lurralde batetik bestera juaten ziren beren artaldeekin, honelaxe harreman estuak izaten zituzten herbestekoekin.

Eneolitos aroa harri eta urraidaren aldia dugu. Orduko giza aztarnak eta baita giza hezurak ere ugariak ditugu. Hauei esker, badakigu nolakoak izan zitezkeen garai hartako lagunak.

Hona nolako burua zuten: ez luze eta ez zabal eta biribila, kokotz mutur irtena, aspiko matrail hezurra hestua, baldoki irtenak, sudur luze eta zorrotza, lepondoko zuloaren aurreko ertzea gorantz oso sartua (horregaitik euskaldunak bere lepoa zutitzen duenean, kokotza bildu xamar jarri ohi du). Hauek dira orduko eta gaurko euskaldunen berezitasun batzuk.

Esan dudan bezala, abeltzaintza zen gure aurreko

horien zereginik garrantzitsuena, lurralde batetik bestera abereak lekuz aldatzen janariaren atzetik.

Gizaki hauek hedatuak zeuden lurralde honetan, dirudienez Pirineo inguru gehienean.

Haitzuloen barruan sarreratik hurbil bizi ohi ziren. Han zutelako argia, han zutelako aire berritzea. Han zeukatelako zutoina, lurrean sakondua, harrizko aulkiez inguraturik. Mendietan ibiltzen ziren gehienak batez ere abeltzainak eta ehiztariak ziren.

Orduko janzkeraz esan dezakegu larruarekin eta ilariarekin eginak zirela. Orduko lagunak, atorrak, soinekoak eta oinetakoak egiten zituzten. Nekazari eta abeltzain izateaz gain, ehiztari trebeak zirela adierazi dezakegu, haitzulo eta lehizazuloetan egiten zituzten marrazkiak aztertzen ditugunean.

Adituek diotenez, garai honetakoak izan daitezke zenbait hilarri, trikuharri, dolmen edo marietxe deritzenak. Eta hauek ikusteko baita aztertzeko ere ez gara urrutiegi joan behar. Hementxe bertan, Elosutik Soraluzera doan mendigainetik aurkitu ditzakegu hamar tumulo eta zortzi dolmen.

Hona hemen hilarrien ezaugarriak: hildako baten omenez eginak ziren. Hilarriaren banean, hildakoaren burua sartalderantz eta oinak sortalderantz zituztela ehortziak. Berarekin batera, bere izkilu eta azabatxezko zein hezurrezko kutunak sartzen ziren. Hartzen, zaldien eta

basurdeen hagin eta harrilorez edo eta lurgorritz babestuak. Soinean berriz, emakumeen irudiak hezurrez eginak. Sinismen eta ohitura horiek bazuten dirudieneguzkiarekin zerikusia, baita emakumezko jainkotasunen batekin ere.

Herrialde haiek eguzkia, ihusturia hodeia, izartegia eta beste gauza asko jainkotzat zeuzkaten. Baina bazuten bi eratako jainkotasunak, ez onak eta ez txarrak, baizik eta antagoniko indarrak, indar osagarriak gizonezkoa eta emakumezkoa, edo baita lurra eta sua.

Hor aurkitu dezakegu euskaldunen jainkosa, Mari deritzana, hau da, ama lurra eta baita Maju eta Urtzi jainkoak ere, unibertsoko eta zeruko indarrak. Mitologikoki Maju Sugaar bihurtu daiteke Marirekin amodioa egiten duenean eta honelaxe sortarazi daitezke eguraldi gogorak eta ekaitzak.

Beraz bi indar osagarri hauekin ikusi omen zituzten lurra eta zeruko gertakizunak. Maju Urtzi eta Mari jainko jainkosak ziren lurreko eta unibertsoko gertakizunak zuzentzen zituztenak baita gizakien piztuera edota beraien bizimodu ona ere zuzentzen zituztenak. Gogoeta hauetan ez zegoen mandamenturik baizik eta izaera bideak. Naturarenganako errespetoa, gizaki berean hasita. Euskaldun esaera batek dioen bezala "Ezai emana, ezak eraman".

GAZTELUPE TABERNA

Martxoak 16: "Remembering OTO" (OTO-ren oroitzapenenean) " BIDE ERTZEAN " taldeak joko du, letrak Oto Otamendirenak direlarik. Kontzertua dohainik izango da.

Martxoak 20: Tango gaua ospatuko da "LOS MOROCHOS" taldearekin. Talde hau bi napar eta argentino batek osatzen dute.

Martxoak 27: "Korrika kulturalaren" ekintzen barnean, AITZOL MUJIKA bergararra arituko da kantari.

Apirilak 9: Suitzatik jazz talde bat etorriko zaigu. Talde hau ondorengo hiru pertsonak osatzen dute, halanola: **Ricardo Regidor** pianoan, **Crispín Pérez** baterian eta **David Zopfi** baxuan.

SORALUZEEKO UDALETXEA

Martxoak 16: Herri-kirolen saioa burutuko da Plaza Berrian eguerdiko letan. Bertan **Jose Antonio Gisasola "Zelai"** eta **Javier Valenciano "Zelai-luze"** harria jasotzen arituko dira. Ondoren **Juan Jose Lopez** eta **Fausto Mugerza** aizkolarien txanda izango da eta bukatzeko, **German Meabebasterretxea** eta **Juan M^a Narbaiza** bertsolarien txanda izango da.

Martxoak 22: **DEBA BAILARAKO TXISTULARIEN VII. ALARDEA** ospatuko da polikiroldegiko zine-aretoan arratsaldeko 8retan. Bertan parte hartuko dute Deba Bailarako txistulariek, Metal eta Saxo taldeak, Ezoziko Ama Abesbatzak, Urrats Dantza Taldeak eta Musika Eskolak. Zuzendari lanetan, berriz, **José Luis Pérez Sarasketa** arituko da.

GAZTETXEA

Martxoak 14: “Korrika kulturalaren” barnean XUIA reggae taldeak parte hartuko du.

•••

Martxoak 15: Zarautzeko “**BRI-GADA SLAM**” taldeak “La Red” bere diskako kantuak aurkeztuko dizkigu.

Apirilak 4: “**ZAZPIKI**” taldearekin funky-blues motatako musikaz gozatzeko aukera izango dugu. Izenak dioen bezala, talde hau zazpi partaidek osatzen dute, halanola: **Emilio saxofoijoleak, Gaizka tronboijoleak, Alfonso tronpetajoleak, Txema gitarrajoleak, Andoni baxujoleak, Alex bateriajoleak eta Lorena kantariak.**

MENDI-TALDEA

Martxoak 16:
ibilaldi neurtua burutuko da.

Apirilak 13:
Malkorra mendira irteera.

Apirilak 27:
Orio-Donosti zeharbidea egiteko asmoa dago.

Pinturas
JOSE PEREZ



PINTURA EN GENERAL
EMPAPELADO

Santa Ana, 21 bajo y 21-2º izq.
Tif: 751075
SORALUZE

YON IÑARRA
HARATEGIA ETA URDAITEGIA

KALEBARREN, z/g Tfnoa. 751249
SORALUZE

PAGOBEBEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA

ARIES:

Osasuna: Makaleko sasoi e! Ez jan eta edan horrenbeste sagardotegietan, kolesterolak gora egingo dizu eta!

Dirua: Afari garaian sabela bete eta poltsikoa hustu. Kartera erabilizu, dirua kontatu eta kreditu txartelari begiratu ere ez!

Maitasuna: Udaberriko giro honek odola eragingo dizu, kontuz halere, neguan gaude oraindik eta.

TAURUS:

Osasuna: Korrika ganean eta baldartuta zaude zeharo. Jantzi zapatilak, korrikako sudadera eta gantzak urtu, pottolo/a!

Dirua: Udaberri, zer berri? Kartera dotorean gutxi dagoela igerri.

Maitasuna: Gozategiren musikaz gozatu, eta ...emoiztazuz musutsuek, maitie, hartixu guruxun guztixe...

GEMINI:

Osasuna: Hotz denean gripea, bero denean doministiku, zurekin ez dago asmatzerik! Kontuz alergiakin!

Dirua: Gastuak handituko zaizkizu oharkabean, baina hor dituzun aurrezkitxoei tiratuz gero ez duzu arazorik izango.

Maitasuna: Zure bigarren alde horrek agintzen dizuna egizu, lehendabizikoa ia beti oker dabil eta.

CANCER:

Osasuna: Eguna luzatuz doan neurri berean murrizten da gaua, beraz ondo aprobetxatu iluneko ordu txikiak.

Lo eza.

Dirua: Dirua xahutzeko garaia duzu hau, arropa berriak erosi zaharrak bota eta ahal denik gehien juerga bota!

Maitasuna: Denak maitatzeko duzun joera horrekin ez zoaz inora ere, eta zu, nork maite zaitu zu? Maitiari galdetu.

LEO:

Osasuna: Estresatuta ibiliko zara sasoi baterako, baina ez nagieren leloari jarraitu horregatik, badakizu... "geroa, alferraren leloa"

Dirua: Bonolotoa, kiniela apustuak... emaitza denarik, lanetik ez zaizu txanponik ere etorriko eta.

Maitasuna: Laister datorkizu nikiak eta jazteko garaia, zure edertasun horrek azal ditzazun. Ez pasatu baina, exhibizionista!

VIRGO:

Osasuna: Udaberriaren eraginez zorabioak eta izango dituzu, eutsi ekilibrioari, altxatu burua eta aurrera!

Dirua: Buruan darabiltzazun faltsifikaziorako ideia horiek baztertu, fitxatuta zaudena jakina da eta!

Maitasuna: Maitasun platonikoak mareatuta zauzka, baina ez al da hobe txoria eskuan? Usoen bati botaitozu begia...

LIBRA:

Osasuna: Zeinu aurkakorra zurea! Libra izan eta libratu ezin! Idorrierian aurkako erremedioa kiwia baraurik jatea.

Dirua: Ditzuzun apur horiek egunero kontatzen ibiltzeak ez dizu batere onik egingo. Begira nolako eskuak dituzun, denak beltz beltz.

Maitasuna: Zein lotsatia zaren! zain dagoenari orduak luze egiten zaizko eta maitasunean aurrea hartzea berebizikoa da. Mugi ipurdi horiek!

SCORPIO:

Osasuna: Hanketan gorriuneak atera zaizkizula eta larri al zabilta? ileak kentzeko argizaria erabiltzea ere!..

Dirua: Maitiak galde egin zoztan lana banuenez, lana lana banuela baina gogorik ez gogorik ez! eta dirurik ez, dirurik ez...!

Maitasuna: Zure gustukoa zen 69-96 hori joan zen, eta 97an ez dakit ba nola moldatuko zaren! kamasutrari behintzat ez begiratu!

JARRAITZEN DU...

MIREN Ileapaindegia

Peluquería mixta

Gabolas, 30 behea • 20590 SORALUZE

Tlf: 753090

Iturgintza ITUR

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa Ana 20

Tlf: 751241

SORALUZE

SAGITARIUS:

Osasuna: Urtebete pasa da aholkua eman nizunetik, gogoan al duzu garbitzeko agindu nizuna? eta belarriko zuloak ere bai? Aurkitu al zenituen oinetako behatzak?

Dirua: Duzun itxurarekin onena lapurretan hastea duzu, ez zaigu arraroa irudituko eta beharbada hobeto biziko zara!

Maitasuna: Abestiak "Maitiak galdegin zautan ..." dio ,baina zein maite? zu ez zintuzke maiteko ezta Iparraldeko "Maitiak " berak ere.

CAPRICORNIUS:

Osasuna: Gero eta argalago zaude, nola egiten duzu? Anorexikoa ez zara ba izango! Jan eta edan , jan eta edan ...

Dirua: Lanerako deia egin nizun behin, eta kasurik ez! Altxor bat dut Pagobedeinkatun gordeta, ea topatzen duzun!

Maitasuna: Jazinto bat oparituiozu, usaintsu bezain koloretsu eta berak... musutxua emangotsu!

AQUARIUS:

Osasuna: Ez da gaixotasuna zurea, horrenbeste parrandaren ajea baino, zaindu astebezez eta atsedenaren ondoren jo eta ke berriro ere!

Dirua: Lana , ziurtasuna,dirua letrarik ez, loteriak parean, oporretarako aukera...AAA... esnatu eta koño,koño amets ederra izan dut!

Maitasuna: Pare parean duzu eta ikusi ez. Ez dago itsulagorik ikusi


nahi ez duena baino. Usaina hartuiozu behintzat.

PISCIS:

Osasuna: Kutisa izorratuko dizuten bikor horiek ez dira luzerako izango,udaberriaren eragina da dena baina halere kontuz txokolatearekin!

Dirua: Urre mehategia aurkitu izanak ez du lanik egin behar ez duzunik esan nahi. Mehatzeko lana beti gogorra. Magia beti lantsu!

Maitasuna: Ilargia betetzen den guztietan San Roke aldera jo ezazu, gure Mari sorginak bedeinkatuko zaitu eta hilberan maitia aurkituko duzu. Eibarrera joan behar ere!



EZKER ESKUIN: 1- Multzo bat hor-hemenka banatu. 2-Eginahalak, saioak. 3- Zital, gaizto. Errepikatuz gogotza. 4- 100 metro karratu. ...Hood, saxoien erdi aroko ezaguna. 5- Berrogeitamaika. Ostatu. Iparretarrak. 6- Txinatarrek erabili ohi duten horma-kazeta. Lehen eta azkenekoa. 7- Landetako herria. Landare mota. 8- Tona. Afrikako intsektu mota. Bostehun eta bat. 9- Gurutzegramak hau ondo amaitzen ez bada, Jainkoak gaitzala ...! Norekin atzizkia. 10- Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. Gaiso. Lege.

GOTIK BEHERA: 1- Saldoan, talde handitan. 2- Ardi arrak. Kontsonantea. 3- Karrika. Janari ongailu. 4- Nafarroa behereko gailurrik garaiena. 5- Zerga mota. Nazio. 6- Diosala. Bizkaiko herria. 7- Ekialdean, nezake. Burdinola. Amperioa. 8- Non atzizkia. Bizkaiko ibilgailuetan. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Kriptonen sinbolo kimikoa. 9- Bihotz gaisotasuna. 10- Izan. Keinua, seinale.

LEHIAKETA



Ondo dakigu hauek Ion, Gorka eta Oier Oregi direla, hirukiak, baina argazkiari begiratuta...

ZEIN DA ZEIN?

Ezkerrekoa:

Erdikoa:

Eskumakoa:

Idatzi lehenbailehen 121 postakutxatilara eta sari ederra eskuratzeko aukera izango duzu.

7A70LAKOAK

Mikel Recio Irusta
Asier Vila Dominguez

H7LDAKOAK

Maria Eguren Larreategi
Fidela Beiztegi Epelde
Severiano Gonzalez Yoldi
Ana Huguet Manonelles
M^a Cruz Lejardi Arriaga
Clotilde Blanco Alvarez
Maria San Jose Zuazua

**3. aleko
lehiaketaren
irabazlea:**

**Kristina
Albisua**

**4. aleko
lehiaketaren
irabazlea:**

**Itsaso
Martin**

**Hemendik aurrera Pil-
Pilean bere etxeko buzoian
dohainik jaso nahi duenak,
idatz beza hurrengo
helbide honetara:**

**PIL-PILEAN
121 Posta Kutxatila
20590 SORALUZE**

**ADI: Ez da kalean
banatuko eta!
Animo, dohainik da!**



Arpla C.B.
Ferretería - Bazar

Santa Ana, 22C
20590 SORALUZE

Tfnoa. 752522
Fax. 752522

Etxabe harategia

Euskel txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE
Tfnoa: 752375

KOMERTZIO LAGUNTZAILEAK :

\$ AMALIA JANARIDENDA

\$ BEGOÑA TXURRUKA URDAITEGIA

\$ M^º JESUS GOZOTEGIA

\$ JABIER ALBERDI HARATEGIA

\$ MARIAJE MERTZERIA

\$ KLIP PAPERDENDA

\$ EROSLE

\$ M^º MAR HARATEGIA

\$ OPTIKA LAKUESTA

\$ MOISES ALTUNA HARATEGIA

\$ ARTEDI MARRAZKI ESKOLA

\$ MERTXE DROGERIXIA

\$ JUANMA ARGAZKI DENDA

Fábrica de Arandelas Pulidas
Tipo Standard, Normas Din y
Zeta, Trabajos de estampación
bajo muestra o plano.



estampaciones LAGA, S/a.

Poligono Industrial
Tlf: 752350-751985
Telefax: 751702

Apdo. 41
20590 SORALUZE

Benito

Anaiak


Altzariak

Santa Ana 26

Tfnoa: 752047

SORALUZE

Euskal Herria



æk

korrika!